

ZER EGIN BEHAR DUZU TXARTELA GALTZEN BADUZU EDO LAPURTZEN BADIZUTE?

Noizbait txartela galtzen baduzu edo lapurtzen badizute, azkar jokatu behar duzu zure dirua eta datuak babesteko.

Horretarako, urrats hauei jarraitu behar diezu:

1. BLOKEATU TXARTELA

Eskatu zure finantza-erakundeari txartela blokeatzea.

Bi modutara egin dezakezu:

- Deitu zure finantza-erakundeak kasu horietarako duen zenbakira.
Ez du axola Espainian edo atzerrian zauden.
- Sartu zure finantza-erakundearen aplikazioan edo webgunean, mugikorraren bidez.
Oso erraza da: sartu aplikazioan, hautatu txartela eta egin klik blokeatzeko aukeran.

2. SALATU LAPURRETA

Txartela blokeatu ondoren, joan poliziarengana eta jarri salaketa.

Norbaitek zure txartela erabiltzen badu, salaketak balioko dizu erreklamazioa aurkezteko eta dirua bueltan jasotzeko.

3. BERRIKUSI ZURE KONTUA

Gogoan izan ez dela beharrezkoa txartela eskuan izatea erosketak egiteko.

Batzuetan, nahikoa da honako hauek jakitea:

- txartelaren zenbakia,
- mugaeguna,
- titularraren izena,
- eta segurtasun kodea.

Horregatik, berrikusi zure txartelarekin egindako ordainketak, zuk egin ez dituzunak identifikatzeko.

4. ERREKLAMATU KARGU SUSMAGARRIAK

Zuk egin ez duzun ordainketarik ikusiz gero, deitu finantza-erakundeari eta jakinarazi bezeroarentzako arreta-zerbitzuari.

Artatzen zaituenak lagunduko dizu gastatzea baimendu ez duzun dirua erreklamatzeko.

5. BABESTU ZURE TXARTELA ETA PIN KODEA

Zure txartela eta zenbaki sekretua (PIN kodea) babesteko arduraduna zu zara.

Beraz, erabili txartela modu seguruan eta ez partekatu zure PIN kodea inorekin.



Iruzurrak saihesteko aholkuak:

- **Konektatu WiFi sare seguru batera.**
Babestu zure WiFi sarea pasahitz batekin.
- **Erosi webgune seguruetan soilik.**
Webgune bat segurua den jakiteko,
begiratu nabigatzailearen goialdean giltzarraporik dagoen
eta egiaztatu helbidea «https» letrekin hasten dela.
- **Babestu zure mugikorra.**
Jarri zuk bakarrik ezagutzen duzun pasahitza
eta aktibatu lokalizazio-funtzioa, galtzen baduzu ere.
- **Babestu zure txartela.**
Galtzen baduzu edo lapurtzen badizute,
erabili bakarrik bankuak ematen dizkizun aukerak galeraren
edo lapurretaren berri emateko.
- **Ez partekatu informazio pertsonala.**
Kontuz sare sozialekin,
informazio pertsonala partekatzen baduzu
iruzurgileek erabil lezakete.
- **Ez partekatu zure bankuko datuak.**
Ez itzazu paperean idatzi
eta ez partekatu lagunekin edo internet bidez.
- **Kontuz ibili.**
Zure PIN kodea kutxazaineen markatzen duzunean
edo txartela erabiltzen duzunean,
ziurtatu inor ez dagoela begira.
- **Zaindu zure gauzak.**
Arreta jarri, batez ere jende ugari dagoen lekuetan.